Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

2024ZAUN0118

REAL UNIÓN PASEALEKUKO ONTZIRALEKUA KONPONDU ETA HANDITZEKO LANEN KONTRATAZIOA
CONTRATACIÓN DE LA REPARACIÓN Y AMPLIACIÓN DEL EMBARCADERO DEL PASEO REAL UNIÓN

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	OBRA, MANTENTZE ETA AZPIEGITURA ARLOA / AREA DE OBRAS, MANTENIMIENTO E INFRAESTRUCTURAS
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2024ZAUN0118

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen zuzeneko xedea da REAL UNIÓN PASEALEKUKO ONTZIRALEKUA KONPONDU ETA HANDITZEKO ZERBITZUAK ematea plegu honen eta kontratuaren baldintza ekonomiko administratiboen pleguaren arabera.

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto directo de este contrato es la prestación de servicios con arreglo a lo dispuesto en el presente Pliego y en el Pliego de Condiciones Económico Administrativas de este contrato, para la REPARACIÓN Y AMPLIACIÓN DEL EMBARCADERO DEL PASEO REAL UNIÓN.

2.- EGUNGO INSTALAZIOA

Ontziralekua Real Unión pasealekuan dago, Irungo iparraldean.

Bidasoko itsasadarraren estuarioaren ezkerraldean dago, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan, Santiagoko nazioarteko zubitik 200 bat metro gora eta Dunboako errekaren bokaletik 70 bat metro behera [ikus 1. planoa. Kokalekua].

15 metro luze eta 3 metro zabal diren altzairu galvanizatuzko bi arrapalak osatzen dute, eta arrapalen zorua zurezko zeharkako xaflek eratzen dute. Bi arrapalen eta pasealekuaren arteko giltzadura gontzak dira, eta arrapalek ur geruzaren gaineko pantalaneko plataformari eusten diote [ikus 4. eta 5. planoak].

Pantalana 20,00 metro zabal eta 6,00 metro luze da, Barcelona 92 modelokoa eta 1991n eraikitakoa, eta 6,00 metro zabal eta 2,50 metro luze diren beira zuntzezko zortzi moduluk osatzen dute.

Poliester erretxinadun beira estratifikatuzkoa da, eta flotagailua eta aparrezko betegarriak ditu.

2.- INSTALACIÓN ACTUAL

El embarcadero se localiza en el paseo Real Unión en la zona Norte del municipio.

Ocupa la margen izquierda del estuario de la ría del Bidasoa, perteneciente al Dominio Público Marítimo Terrestre (DPMT), a unos 200 m aguas arriba del puente internacional de Santiago y a unos 70 m aguas abajo de la desembocadura de la regata Dunboa. (Ver plano 1 Situación y emplazamiento).

El embarcadero está compuesto por dos rampas de 15 metros de longitud y 3 metros de anchura, de acero galvanizado, con un piso de láminas de madera transversales. Estas dos rampas están articuladas al paseo mediante bisagras, y sujetan la plataforma del pantalán que se apoya sobre la lámina de agua. (ver planos 4 y 5).

El pantalán de 20,00 m x 6,00 m, está compuesto por 8 módulos de dimensiones 6,00 m x 2,50 m, de fibra de vidrio, modelo "Barcelona 92" fabricado en 1991.

Se trata de un pantalán fabricado en estratificado de vidrio con resina poliéster, con flotación incorporada y rellenos con espuma.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: LIAL-KMOD-UGXV-X7M5

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (05/02/2025 09:12 CET)

3. KONTRATUAK BARNEAN HARTZEN DITUENAK

Lan hauek egin beharko dira:

- Pantalana osatzen duten moduluak konpondu, garbitu eta pintatu
- Egoera txarrean dauden torloju eta elementuak aldatu
- 6,00 metro zabal eta 2,50 metro luze diren bi modulu berri hornitu, garraiatu eta jarri –egungo pantalana osatzen duten moduluen ezaugarri berak edo antzekoak izan beharko dituzte–

4. LANAK EGITEKO MODUA

Ordena honetan egin beharko dira lanak:

4.1.- DAUDEN MODULUAK KONPONTZEA:

- Ontziralekua desmuntatu eta berau osatzen duten elementuak pasarelen inguruan pilatu, gero berriro muntatzeko

- Pantalana osatzen duten moduluak kargatu eta nabe batera garraiatu, bertan konpondu, garbitu eta pintatzeko –moduluak konpondu eta garbitzeko lanen barruan, beheraguneak lokalizatu beharko dira, moduluak lixatu eta pintatu, moduluen barrualdea beira zuntzez eta erretxinaz sendotu, moduluak aparrez bete, eta egindako zuloak zuntzez eta erretxinaz bete–

- Gainaldea lixatu eta ez irristatzeko marrazkia lehengoratzeko ehunak jarri

- Egoera txarrean dauden torloju eta elementuak aldatu

- Modulu konponduak eta bi modulu berriak garraiatu eta jarri

4.2.- BI MODULU BERRIREKIN HANDITZEA:

- Modulu berrien eta zaharren arteko junturak prestatu

- 6,00 metro zabal eta 2,50 metro luze diren bi modulu berri hornitu –egungo pantalana osatzen duten moduluen ezaugarri berak edo antzekoak

3.- ALCANCE DEL CONTRATO

Los trabajos a ejecutar serán los siguientes:

- Reparación, limpieza y pintado de los módulos del pantalán existentes.
- Cambio de tornillería y elementos en mal estado.
- Suministro, transporte y colocación de dos nuevos módulos de dimensiones 6,00 m x 2,50 m, de iguales o similares características que los existentes.

4.- DESARROLLO DE LOS TRABAJOS

Los trabajos se desarrollarán como sigue:

4.1.- REPARACIÓN DE LOS MÓDULOS EXISTENTES:

- Desmontaje del embarcadero y acopio en las inmediaciones de las pasarelas para su posterior colocación.

- Carga y traslado de los módulos del pantalán a nave para su reparación, limpieza y pintado. La reparación y limpieza de los módulos incluirá la localización de las zonas hundidas, el lijado, el pintado, el refuerzo del interior con fibra de vidrio y resinas, el relleno con espumas y el cierre de los agujeros ejecutados con fibra y resina.

- Lijado de la zona superior y colocación de tejidos para la recuperación del dibujo antideslizante.

- Cambio de tornillería y elementos en mal estado.

- Traslado y colocación de los módulos reparados

4.2.- AMPLIACIÓN CON DOS MÓDULOS NUEVOS:

- Preparación de las uniones de los módulos nuevos con los viejos.

- Suministro de dos nuevos módulos de dimensiones 6,00 m x 2,50 m, de iguales o similares características a los existentes.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: LIAL-KMOD-UGXV-X7M5
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (05/02/2025 09:12 CET)

izan beharko dituzte–

- Bi modulu berriak lekualdatzea eta jartzea.
- Instalazio berria sendotzeko beharrezkoak diren tiranteak hornitu eta jarri

Kontratuak barnean hartuko du konpondu beharreko moduluak nabe batera eta material guztiak lantokira garraiatzea eta garabia erabiliz elementu guztiak muntatzea

- Traslado y colocación de los dos módulos nuevos.
- Suministro y colocación de los tirantes que sean necesarios para reforzar la instalación ampliada.

Estará incluido en el contrato el traslado a la nave de los módulos para su reparación y de todos los materiales a obra, así como el montaje con grúa de todos los elementos.

4.3. LANAK EGITEKO NEURRIAK:

- Enpresa esleipendunak, bere kontu, kontratua baldintza seguruetan (langileentzat eta kirol instalazioen eta pasealekuaren erabiltzaileentzat seguruak diren baldintzetan) betetzen duela ziurtatzeko beharrezkoak diren balizak, segurtasun elementuak eta seinaleak hornitu beharko ditu, eta bere ardurapean jarri.
  Neurri honek barnean hartzen ditu beharrezkoa denean pasealekua ixteko beharrezkoak diren materiala eta elementuak.
- Lanak egin bitartean, behar-beharrezkoa den eremua bakarrik okupatu eta ukituko da.
- Bereziki, kaleko altzariei, seinaleei, argi publikoei, zolagainari eta/edo zuhaitzei kalterik ez egiteko neurriak hartu beharko dira, eta, nahi gabe kalterik eragiten bazaio kaleko elementuren bati, lanak bukatutakoan konpondu beharko da.

4.3.- MEDIDAS PARA EL DESARROLLO DE LOS TRABAJOS:

- La empresa adjudicataria suministrará a su cargo y colocará bajo su responsabilidad todos los elementos de balizamiento, seguridad y señalización que sea preciso colocar para asegurar la ejecución del contrato en condiciones de seguridad tanto para los trabajadores, como para los usuarios de las instalaciones deportivas y del paseo peatonal y ciclista.
  Esto incluye todo el material y elementos necesarios para proceder puntualmente al corte del paseo si fuera necesario.
- Durante el desarrollo de los trabajos, no se ocupará ni afectará más superficie que la estrictamente necesaria.
- Se tendrá especial cuidado para evitar daños a elementos del mobiliario urbano, señalización, alumbrado público, pavimentación y/o arbolado. Cualquier desperfecto que accidentalmente se produzca sobre cualquier elemento urbano, se reparará al finalizar los trabajos.

4.4. INGURUMEN ARLOKO NEURRIAK:

- Lantokiaren ingurua ahalik eta garbien mantenduko da, eta, lanak bukatutakoan, garbiketa kanpaina sakon bat egingo da.
- Makineria eta ibilgailuak ahalik eta gutxien ibiliko dira haientzat egokitzen diren bideetatik kanpo.
- Etengabe, ontziralekuaren inguruko uren egoera aztertuko da, begiz, espero ez den kutsagarririk isuriko balitz azkar hartu ahal

4.4.- MEDIDAS MEDIOAMBIENTALES:

- Se mantendrá en las mejores condiciones de limpieza el entorno de los trabajos, llevando a cabo una campaña exhaustiva de limpieza al finalizar los mismos.
- Se restringirá al máximo la circulación de maquinaria y vehículos fuera de los accesos habilitados para tal fin.
- Se revisará visualmente y de forma continuada el estado de las aguas del río en el entorno del embarcadero, de forma que, en

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: LIAL-KMOD-UGXV-X7M5
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (05/02/2025 09:12 CET)

izateko dagozkion neurriak.

- Hidrokarburoak xurgatzeko materiala izan beharko da eskura, nahi gabe isuririk izango balitz ibaia ez kutsatzeko: polipropilenozko biribilki edo mantak, material pikortsua (sepiolita, diatomeo harea), etab. –behin erabilita, kudeatzaile baimendu batek kudeatu beharko du–.

- Airearen kalitatea zaintzeko, makineria guztiak ibilgailuen azterketa teknikoa egunean duela ziurtatu beharko da.

- Zarata eta bibrazioei dagokienez, lanak hirigunean egingo direnez, egunez egin beharko dira, 08:00etatik 20:00etara, eta *212/2002 Errege Dekretua bete, otsailaren 22koa, Kanpoan erabiltzen diren Makinek Ingurunean sortzen dituzten Soinu Emisioak arautzen dituena.*

4.5. HONDAKINEN KUDEAKETA

- Sortzen den hondakin mota bakoitza kudeatzeko, beronen ezaugarrien arabera egokiena den bidea erabiliko da. Oro har, sortutako hondakinak ekonomia zirkular baterako *hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen arabera kudeatuko dira.*
- Enpresa esleipenduna arduratuko da hondakin guztiak kudeatzeaz, eta kontratuaren barruan sartuko du horretarako prezioa.

5.- LANAK EGITEKO EPEA ETA LANEN ETA LOHI PONPAKETAREN ARTEKO KOORDINAZIOA

Kontratatzekoak diren lanek eragin handia izango dutenez kirol instalazioetako jardunean, irailean egin beharko dira.

Gainera, kontratu honen esparruan egiten diren lanak REAL UNIÓN PASEALEKUKO ONTZIRALEKUAREN INGURUKO LOHIA PONPATZEKO LANEKIN koordinatu beharko dira.

caso de que se produjese una contaminación no esperada, puedan tomarse con rapidez las medidas oportunas.

- Se deberá tener a disposición material para absorber hidrocarburos y evitar así la contaminación en caso de que se produzcan vertidos accidentales: podrá ser tipo rollos o mantas de polipropileno, material granulado (sepiolita, arena de diatomeas), que tras su eventual uso, deberán ser gestionados por gestor autorizado.

- Como medida de protección de la calidad del aire, se asegurará que toda la maquinaria utilizada esté al día en lo que a Inspección Técnica de vehículos se refiere.

- En relación con los ruidos y vibraciones, y al localizarse la obra dentro de un entorno urbano, se respetará un horario de trabajo diurno (entre las 8h y las 20h). así mismo, se cumplirá el *real Decreto 212/2002, de 22 de febrero, por el que se regulan las emisiones sonoras en el entorno debidas a determinadas máquinas de uso al aire libre.*

4.5.- GESTIÓN DE RESIDUOS**:**

- En función de las características de cada uno de los residuos generados, se utilizará la vía de gestión más adecuada. De forma general, los residuos generados se gestionarán según la *Ley 7/2022 de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular.*

- La gestión de todos los residuos será responsabilidad de la empresa adjudicataria y su precio estará incluido en el precio del contrato.

5.- PLAZO DE EJECUCIÓN Y COORDINACIÓN DE LOS TRABAJOS CON EL BOMBEO DE LODOS

Debido a la importante afección de los trabajos contratados a la actividad de las instalaciones deportivas, estos deberán de ejecutarse en el mes de septiembre.

Además, se deberán coordinar las diferentes actuaciones del presente contrato con los trabajos relativos a las "OBRAS DE BOMBEO DE LODOS EN EL ENTORNO DEL EMBARCADERO DEL

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (05/02/2025 09:12 CET)
Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: LIAL-KMOD-UGXV-X7M5

PASEO REAL UNIÓN" que comenzarán una vez se haya desmontado y retirado la instalación del embarcadero.

Ontziralekua desmuntatu eta erretiratutakoan hasiko dira lohia ponpatzeko lanak, eta hilabete iraungo dute.

Los trabajos de bombeo de lodos tienen un plazo de un mes.

Behin lohia ponpatzeko lanak bukatuta, ontziraleku berria jarriko da.

Una vez finalizados los trabajos de bombeo de lodos, se procederá a colocar el embarcadero reparado y ampliado.

Hori dela eta, kontratu honen esparruan egiten diren lanak egiteko guztizko epea bost aste izango da.

Por todo ello, el plazo total de los trabajos a efectuar con el presente contrato será de 5 semanas.

6.- ARAUDIA BETETZEA

Kontratu honen barruko zerbitzu oro ematean, nahitaez, egungo araudi tekniko eta tekniko legal guztia eta segurtasun eta higiene arloko egungo araudi guztia bete beharko da, baita instalazioaren ezaugarriengatik aplikatu beharreko guztia ere.

Bereziki, egin beharreko lanek Kosta Legea bete beharko dute, ontziralekua itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan baitago.

Horrela, neurri hauek hartu beharko dira gutxienez:

- Lantokiak behar-beharrezkoa den eremua bakarrik okupatuko du aldi baterako, behar-beharrezkoa den denbora bakarrik.
- Ezingo da inongo hondakinik ez kutsatzailerik isuri uretara.
- Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa egoera onean kontserbatu eta mantenduko da, baita lantokia eta baimentzen diren instalazioak ere.
- Bide zortasuna bermatu beharko da, eta ezingo dira oztopatu ez bide zortasuna, ez itsasorako sarbidea.
- Lanak bukatutakoan, garbiketa kanpaina sakon bat egingo da, hondakin guztiak eta kontratua betetzeko erabilitako material eta elementu guztiak garbitzeko.

6.- CUMPLIMIENTO DE LA REGLAMENTACIÓN

En el desarrollo de todas las prestaciones derivadas de este contrato, será de obligado cumplimiento toda la actual normativa de carácter técnico, técnico–legal y de seguridad e higiene, así como toda la que pueda ser de aplicación por las características de la instalación.

En particular, los trabajos a ejecutar estarán sometidos a la Ley de Costas por encontrarse el embarcadero dentro del dominio Público Marítimo Terrestre.

En consecuencia, se adoptarán, al menos, las siguientes medidas:

- Se asegurará que la ocupación temporal de la zona de obras se restringe a la mínima necesaria, y que el tiempo de ejecución se limita igualmente al mínimo.
- No se podrán verter residuos ni elementos contaminantes al agua.
- Se mantendrá en buen estado de conservación y mantenimiento el dominio público marítimo-terrestre, así como la zona de obras y las instalaciones autorizadas.
- Deberá quedar garantizada la zona de servidumbre de tránsito, no constituyendo obstáculo para el ejercicio de las servidumbres de tránsito y acceso al mar.
- Al terminar los trabajos, se realizará una campaña de limpieza en la zona, eliminando la totalidad de los restos y de los materiales y elementos utilizados para la ejecución del contrato.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: LIAL-KMOD-UGXV-X7M5

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (05/02/2025 09:12 CET)

- Lantokian itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren barruan dagoen eremua egoera onean dagoela ziurtatuko da.

- Se realizará una inspección para garantizar el correcto estado del DPMT en el ámbito de las obras.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: LIAL-KMOD-UGXV-X7M5

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (05/02/2025 09:12 CET)